







Energia kontsumoa EAEn



Energiaren kontsumoa EAEn

Elektrizitatea
Kontsumitutako elektrizitateak %11,3 egin zuen behera apirilean, 2011. urteko hil berean izandakoaren aldean.

Beharakada horren eragilea industria izan zen, %18,3 jaitsi baitzen: zehazki, siderurgiak eta galdagintzak %27,7 egin zuten behera. Etxe edo bizitegi eta zerbitzu arloak, berriz, %5,5 eta %1 igo ziren, hurrenez hurren.

2012ko lehen lauhilekoan metatutako kontsumoa %8 jaitsi zen. Arloka adierazita, industriak %14 egin zuen behera (-%25 siderurgiak) eta bizitegiak %1. Zerbitzu alorra, ordea, %2,3 igo zen.

Gas naturala
Apirilean, gas natural konbentzionalaren kontsumoak %9 egin zuen gora, 2011ko hil horretan izandakoarekin konparatuta; guztizko kontsumoa %12 igo zen.







Urtean metatutako guztizko kontsumoak %13 egin du gora; konbentzionalak %2,4 eta zentral termikoek %94.

Erregaiak garraioan
Martxoan erregaien kontsumoa %4,6 igo zen Euskal Autonomia Erkidegoan, 2011. urteko hil berean izandakoaren aldean. Gasolinarenak %0,5 egin zuen gora eta gasolioenak %5,2.

2012ko lehen hiruhilekoan erregaien kontsumoa %3,6 igo da, iazko epe berean izan zenarekin erkatuta. Zehazki, gasolinena %3,6 jaitsi da eta gasolioena, aldiz, %4,7 igo da.

Iturriak: EEEK prestatua, CORES, Enagás eta Iberdrolaren datuetan oinarrituta.

Kanpoko Egoera



EAetik kanpoko egoera

Petrolioaren kontsumoa munduan
 Apirilean, munduan petrolioaren kontsumoak %1,5 egin zuen gora, 2011ko hil horretan izandakoaren aldean, eta 87,7 Mbpd iritsi zen. Hala, Europar Batasunean %3,4 egin zuen behera kontsumoak (13,5 Mbpd), AEBetan %0,3 (18,6 Mbpd) eta Txinan, berriz, %2,9 egin zuen gora (10,1 Mbpd).

Munduan, petrolioaren batez besteko kontsumoa %0,9 igo da 2012ko lehen hiruhilekoan, oro har, eta Txinan %1,8; Europar Batasunean eta AEBetan, ordea, %3,6 eta %2,7 jaitsi da, hurrenez hurren.

Energiaren kontsumoa Espainian
 Espainian, apirilean elektrizitatearen kontsumoak %0,9 egin zuen gora, 2011ko hil horretan izandakoarekin konparatuta,





Apirilean, gas naturalaren kontsumoa %7,7 igo zen, 2011n izandakoaren aldean; eta urtean metatutako kontsumoak %1,4 egin zuen gora.

Garraioan, Espainian erregaien kontsumoak %5,9 egin zuen behera martxoan, 2011ko hil berean izandakoarekin alderatuta; gasolinen kontsumoa %2,9 jaitsi zen, eta %6,5 gasolioen kasuan. Erregaien kontsumoaren beherakada %4,7 izan da 2012ko lehen hiruhilekoan, iazkoarekin erkatuta.

Bestetik, hegazkinetan erabiltzen den kerosenoen kontsumoak %16,3 egin zuen behera martxoan, 2011ko martxoan izan zen kontsumoaren aldean; eta urteko lehen hiruhilekoan kontsumoa %7,2 jaitsi da.

Iturriak: REE, CORES, Enagás, EEEK prestatua, AIE eta EIAREN datuetan oinarrituta.

Energiaren prezioa



Energiaren prezioa

Petrolioaren prezioa

Apirilean, Brent petrolio upelaren batez besteko prezioa 120,6 \$ (91,6 €) izan zen. Urtean batez besteko prezioak %27 egin zuen gora, aurreko epealdian izandakoaren aldean (%24,4 eurotan).

Gas naturalaren prezioa

Spot (UK NBP) gas naturalaren prezioa %10,4 igo zen otsailean, 2011ko hil berean izandakoarekin erkatuta, eta 23,9 €/MWh izan zen. Alemanian, inportazioaren batez besteko prezioak %22,4 egin zuen gora martxoan, iaizko hil berean izandakoaren aldean (30,9 €/MWh).

Ikatzaren prezioa

Ikatzaren prezioa otsailean 97,8 €/t CIF ARA izan zen; hori horrela, azken hamabi hilabete hauetan %16,5 igo da.

Elektrizitatearen prezioa

OMIE eguneroko merkatuan, Espainian, elektrizitatearen prezioak %9,3 egin zuen behera apirilean, urtebete lehenago hil horretan izandakoarekin konparatuta, eta 41,2 €/MWh iritsi zen.

Erregaien prezioa

EAEn, gasolioaren prezioa 1,36 €/l izan zen eta gasolinarena 1,47 €/l apirilean. Iazko hil berean izandakoekin alderatuta, prezioak %5,8 eta %9,9 igo ziren, hurrenez hurren, eta inoizko preziorik altuenak dira.

CO₂-ren prezioa

CO₂-aren EUA baimenaren etorkizuneko prezioa 8,6 €/t izan zen otsailean; 2011ko hil horretan izandakoarekin konparatuta, %42,7 egin zuen behera.

Iturriak: EEEK prestatua, OMIE, CESUR, CNE, eta BAFaren datuetan oinarrituta.